

2005ean Cork hiri irlandarra europar kultura-hiriburua izan da, eta hori dela eta, programatutako jarduerako bat *Cork Caucus* izan da. Proiektu horretan esku hartu dute artistek, ekoizpen egiturek, idazleek eta teorikoek, eta heziketarako plataforma moduan eratu da borondate kolektiboaren inguruko elkarrizketa eta eztabaida sustatzeko. Programaren antolatzaileek, Art-Not Art, Charles Esche (CE) eta Annie Fletcher, National Sculpture Factory delakoarekin elkarlanean, proposatu dute europar ospakizun horren emaitza kulturalari lehentasuna ematea, testuinguru horren zirkunstantzia zehatzen gainean jarduteko orduan.

LEIRE VERGARA

## Artea, aukera eta demokrazia

Charles Escheri elkarrizketa

**LV** *Cork Caucus* jarduera planteatzen da aurkezpen, *picnic*, tailer, irakurketa talde, erakusketa eta bilera informal anitzetik abiatuta garatutako topaketa gisa. *Caucus* kontzeptua erabaki garrantzitsuak hartzen diren barne bilera politikoko bati dagokio, hala nola, parlamentuko hautagaiak hautatzea. Nola planteatu duzue eredu hori proiektuaren barruan?

**CE** Lehenengo eta behin, *caucus* ereduak badu zerikusirik hasieran demokraziaren geroaz genuen interesarekin. Egungo esparru politikoa, demokrazia gero eta mugatuago dago, diskurtso politikoa gero eta murriztuago. Egoera horrek baldintzatu egiten du irudimen gaitasuna, inondik ere. Geure buruari egin diogun galdera izan da ea artea erabil daitekeen diskurtso, truke eta demokrazia forma berriak sortzeko leku moduan. Egitura berri hauek politikari jaramonik ez egitera irits daitezke, era alternatiboan finkatu eta jendearen borondaterantz gidatu. Beste aldetik, *caucus* kontzeptua buru-hautatuen arteko topaketa posible baten ideian ere oinarritzen da. Hori diodanean inklusio sozial moduan ulertutako kulturaren aurkako errealitate batez ari naiz, edo denek partekatu beharreko ondasun komun moduan ulertutako arteaz. Ez nago ados kultura eredu horrekin, eta ez dut uste arteak horrela funtzionatzen duenik, ezta artezaleak edo artearekin engaiatutako jendea premisa horien arabera sortzen direnik ere. *Caucus* ideiak aukera bat eskaintzen du talde batean esku hartzeko, topaketa horretan kide aktibo moduan parte hartzeko, eta jakina, era irekian eta murrizketarik gabe. Alabaina, hasieratik bagenekien proiektu honek ez zuela ikusle kopuru handirik izango.

**LV** Topaketa planteatzeko orduan beste erreferentzia bat izan da Joseph Beuysek 1970eko hamarkadan egindako proposamena, hots, Irlandan *Free International University* proiektua gauzatzearena. Zer erlazio ikusten duzu deskribatutako ereduarekin?

**CE** Beuysen erreferentziak hark politikotasunarekin zuen kezka eta konpromisoa azpimarratzen du, eta barne hartzen du orobat demokraziaren eta demokrazia eredu desberdinen



Caucus Centre, Evergreen Street, Cork

inguruko hasierako kontua. Beuysek proposatu zuen *Free International University* delakoa Dublinen egitea. Ideia horren jatorrian zegoen artistak kultura zeltarekin zuen harreman erromantiko eta mitologikoa. Beuysentzat, Irlanda lurralde birjina zen, garatu gabea oraindik, eta bertan edozein gauza egin zitekeen. Kontzepzio hori okerra da nolabait, baina agerian uzten du artistak kultura hartan zuen interes pertsonala. Guretzat, Irlandan heziketa, demokrazia eta artearen inguruko proiektu bat finkatu nahian genbiltzanez, saihestezina zen adibide horren erreferentzia izatea. *Free International University* proiektuak hurbildu egiten gintuen lan egin nahi genuen testuinguru zehatzera. Hala ere, ez diogu garrantzi gehiegirik eman nahi izan; gaur egun eredu hura berrasmatzea ez zitzaigun interesatzen, proposamena bera ere izugarri arazotsu ikusten genuelako.

**LV** Baina gaur egun Joseph Beuysek politikotasunarekiko konpromisoa pizteko zeukan presa berriro aztertzeak garrantzitsua ematen du, Estetikaren eta Politikaren arteko dikotomiaz une honetan berriro zabaldu den eztabaida kontuan hartuta. Nola interpretatzen duzu beste aldetik kontu zahar bat den eztabaida hori?

**CE** Ez dut uste inork aldarrikatzen duenik gauza berria balitz bezala. Arte praktika aktibo baten eta politikotasunarekiko duen harreman ez nahitaez efektiboaren gaineko gogoeta zabalik dago gizateriaren hasieratik. Hala ere, une honetan dagoen egoerak presazko gauza egiten du neurri batean. Horrek zerikusia du azken 30 edo 40 urteetan gertatutako demokraziaren porrotarekin. Termino ekonomiko edo korporatiboetan, garapen handia bultzatu da zenbait zentzutan, baina teoria eta praktika politikoa gelditu dira ez aurrera ez atzera. Nire iritziz, gaur egun Europar Batasunean, Europa zaharrean, gerra hotzean Bloke estatubatuarrak babestutako Europa kapitalistan dagoen egoera Sobiet Batasuneko 70eko hamarkadakoarekin aldera genezake. Hau da, ez aurrera ez atzerako une batean gaude, irudimen eta aukera galerako une batean, alor politikoan. Ez dakit zenbat denbora iraun dezakeen paralisi horrek, *perestroikaren* antzeko prozesu baten zain gaudela ematen du. Krisialdi horrek islatu besterik ez du egiten ez dagoela diskurtso landu, kritiko eta inteligente bat Europaz eta Nazio Batuez; ezta, ordea, immigrazioaz, Ongizate Estatuaren erreformak zabaldutako aukera politikoaz, gizarte kontzeptuaz. Gai horietaz ez da ostera zorrotz teorizatu 1968az geroztik.

## Nola jardun dezakegu era kolektiboan?



Charles Esche, Cork Caucus 2005

**LV** Catherine Davidek, Estetika eta Politikaren inguruko bere mintegian, espezifikitate kontzeptua proposatzen zuen bikote horren izaera generikoari aurre egiteko tresna izan daitekeen aldetik. Shep Steiner-ek ere erabili izan du hitz hori Giorgio Agamben-en *Datorren komunitatearen* inguruan antolatutako bere taldean.

**CE** Uste dut termino hori erabiltzea oso egokia dela eztabaida honetan sartzen garenean generalizazioaren amarruan ez erortzeko. Nik ere balioa ematen diot inondik ere espezifikotasunari, mikro denari, Leninen hitzetan *baldintza zebaiten azterketa zehatzari*; horregatik bat nator adibideak erabili behar direla, kontingenteak, espezifikoak, tokikoak diren aldetik. Giorgio Agambenek aipatzen du orobat adibidea *Datorren komunitatean*. Hori dela eta, *Cork Caucus*en dau den lehentasunetako bat, eta nolabait orain funtzionatzen hasten ikusten ari garen gauza, *grassroots* fasea da, azken topaketa honen aurreko ekitaldi programa bera, Dobz O'Brien eta Fergal Gaynor Art-not Art taldeko kideek zuzendua urte osoan. Jarduera horiek egin dira hiri honen nondik norako espezifikoen gainean zuzenean jarduteko asmoz, baita, ordea, kontuan hartuta Art-not Arten zirkunstantzia espezifikoak, proiektuan eragile aktiboa den aldetik, eta Corken sormen ekoizpena sustatzeko faktore beharrezkoak ere. Hasiera-hasieratik, garrantzitsu jo dugu proiektuak tokiko artisten komunitatearentzat funtzionatzea, informazio-injekzio huts ez bihurtzea. Nola Catherine Daviden hala Shep Steinerren saioetan, irakurketa arretatsua (*close reading*) sustatu da. Liverpooleko Static kolektiboak proiektu bat garatuko du ideia horren inguruan; haien asmoa da Cork Unibertsitateko Arte Ederretako fakultateko ikasleekin lan

egitea. Badira leku honen berezitasunetan txertatzen diren beste zenbait proiektu; hala nola, Bik Van der Pol-en *Ford Boxes* proiektua. Baina garrantzitsuena da proposamen horiek nolabaiteko oihartzuna eragitea hiriaren etorkizunean, *Cork Caucus* hiru aste hauetako topaketatik haratago hedada dadin.

**LV** *Cork Caucus* proiektuak beste bikote bat ezartzen du: aukera artistikoa eta demokrazia. Zein zentzutan?

**CE** Horretaz da, hain zuzen, *Cork Caucus*. Egiten den galdera da ea posiblea den artearen alorretik demokrazia aztertzea. Alegia, nola jardun dezakegu era kolektiboan? Demokrazia borondate kolektiboaren adierazpena da, baina adieraz ote dezakegu hori artetik abiatuta, artea azken batean praktika gizabanakoarena, subjektibo jotzen badugu? Egin al liteke hori? Artearen helburua aukera huts hori sortzea ote da, hots, borondate kolekti-


boa adieraziko duen plataforma hornitzea? Eta azkenik, zer nolako harremanak eratzen dira artearen eta demokraziaren artean? Harreman horiek izugarri zailak dira nire ustez, demokrazia errealista baita, ukigaia, eta argi dago borondate kolektibotik abiatuta ez dela arterik sortzen. Edonola ere, elkarreraginak daude. Demokrazia etengabe ari da elkarreaginean artearekin, adibidez, museoetara zenbat jende joaten den jakin nahi duenean.

**LV** Orduan, demokraziak batzuetan eragin negatiboa izan al dezake artean, hau da, kontrol neurri bilakatu?

**CE** Demokrata sinetsizat dut neure burua; zentzu batean, anarkia ere demokrazia da, eta horren alde borrokatu behar dugu. Demokrazia gehiago behar dugu. Baina Europako ipar-mendebaldeko demokraziak adibide txarrak dira aipatu dudana "aukera demokratikoa" adierazteko. Agian arteak eredu berriak sortu ahal izango ditu. Kultura herrikoitik, joera dugu sinesteko demokrazia errealitate bakar bat dela, bizitzaren ari garena; baina prozesu bat da, bilakatze etengabe bat. Horretaz hitz egin dute Shep Steinerren mintegian, alegia, nola, totalitarismoaren kontrara, demokraziatik abegi ona bezalako ekintzak landu daitezkeen haiek mehatxu bilakatu gabe. Arazoa sortzen da, esaterako, argi geratzen ez denean Estatu Batuetan demokraziaren edo totalitarismoaren aurrean ote gauden. Nire familia Errepublikan Demokratiko Alemaniarretik dator, eta horregatik konturatzan naiz demokrazia era askotarikoan interpreta daitekeela.

**LV** Chantal Mouffen agonia kontzeptua erabili duzu programa horretaz ari zinela, eta era berezian bere "etsai adiskidetsuak" (*friendly enemies*) ideia. Zertaz ari zinen?

**CE** Adibide argiena *grassroots* jardueretan eta proiektuaren muinean dago. Alde batetik, tokiko diskurtsoa dago, zerikusi zuzena duena hemen bizi den jendearekin; bestetik, nazioarteko taldea dago. Bien arteko harremanak ez dira errazak, baina tentsio onuragarria da, agonia onuragarria. Beharbada garrantzi handiagoa izango du hemen programaren ondoren gertatuko denak hiru aste hauetako gorabeherek baino. Hemen kontzentratu egiten da tentsioa.



Shane Cullen *Courage to Refuse* Cork Caucus 2005

**LV** Zer motatako ekoizpena sustatu nahi izan duzue?

**CE** Badira espezifikoki ekoizten diren proiektuak. Adibidez, zenbait artistari, hala nola Bik Van der Pol, Phil Collins edo Surasi Kusolwong, lan berria ekoizten ezaten eskatu zaie. Edonola ere, ez dugu dena alde aurretik erabaki nahi izan; erabiltzen ez den eskola zahar honetako gela bakar batek aukera eskaintzen digu elkarlan gehiago eragiteko edo hiriko ikasleak ezagutzea sustatzeko. Harreman horretan sakontzea gehiago interesatu izan zaigu artisten proiektu berriak ekoiztea baino.

**LV** Hortaz, *Cork Caucus* en gehiago biltzen da arreta ezagutzaren ekoizpena.

**CE** Baita elkarrizketa, eztabaida aktiboa ekoiztera ere. Horrek zerikusia du *Cork Caucus* en historiarekin, bai prozesuan sortzen diren zenbait konturekin ere. Hau da, nola formula dezakegu nazioarteko lotura egoki bat eszena partikular honetarako? Nolatan bultza dezakegu tokiko ekoizpen prozesu bat, aldi berean nazioarteko eszenan txertatuko dena? Beraz, garrantzitsua da diskurtsoan konfiantza sortzea, eta hori modu progresiboan bakarrik lor dezakegu. Horren haritik, Cork ez da soilik programa garatzen den lekua, osagai zentral ere bihurtzen da. Proiektua hiri honetako arte egoera espezifikora egokitzen da, eta sortu dugun egitura nazioarteko eszenarekiko informazio edo harreman gabezia horri erantzuteko sortzen da. Alabaina, nire iritziz, gisa honetako proiektuek erakusketa handiaren ereduari jarraitzen diote, era alternatiboan. Egia esateko, National Sculpture Factory-ren lehen proposamena erakusketa-gertakari handi bat antolatzea zen. Niri ez zitzaidan interesatzen Corken horrela jardutea. Ni ere era horretako egoerek artista gazteengan beste motibazio batzuk sortzen dituztelakoan nago. Erakusketetara joateak ez du esperientzia maila bera ematen, ezta konpromiso maila bera ere. Horrela lan egiteko moduan sartu behar dugu buru-belarri, komunitate baten kideak garen aldetik. Uste dut interesgarria dela hau bezalako gertakariak bienalekin alderatzea, eta ikustea zehazki zer eskain dezaket. Horren haritik, asko ikasi nuen *La Cumbre-Tiempo de transacción* proiektutik (Consonnik eta Artelekuk 2003an antolatua). Dena malgutasunik gabe gaideterminatu nahi baldin bada, erraza da proiektua erasanda gertatzea. Corken, dena den, sarrera-fase batean gaude. Egoera ideala izango litzateke topaketa hau urtero egitea, agian bost urte segidan, eta bertara jende bera gonbidatzea urtero-urtero. Arazoa, jakina, dirua da.

**Abiadurak hustu egiten du ekintza kritikoa. Kapitalismoak ergelkeriaren premia du kontsumo gehiago sortzeko. Pentsamendu kritikoren gabeziak etekina areagotzen du.**

**LV** Nola lotzen duzu *Cork Caucus* lehendik garatutako beste heziketa-proiektuekin?

**CE** *Cork Caucus* sortu zen Seulen eta Jakartan antolatu nituen bi tailerretako esperientziatik. Europatik eta Asiatik zetozen artista taldeek parte hartu zuten haietan. Kontua zen parte hartzaileek ideiak trukatzeko eta testuinguru desberdinekin lan egiteko zuten moduz jendaurrean eztabaidatzeko aukera izan zezatela; azken batean, asmoa zen arte globala aztertzeke beste ikuspegi bat probokatzea, eta beste lotura batzuk sortzea. Hemen ere, solasaldi horiek berez ekoizpen forma moduan ikus ditzakegu; haietatik abiatuta, proiektu interesgarriak ekoitziko dira datozen hilabete edo urteetan. Horixe da heziketa ereduaren, proto-akademiaren alderdi adierazgarria.

**LV** Horrek badu zerikusirik Walter Benjaminen “autorea, ekoizle” nozioarekin ...

**CE** Preseski. Kontua da hartu duzun horren inguruan esanahi berri bat sortzea. Probokatu egin behar dugu jendeak era kritikoa pentsa dezan.

**LV** Beste aldetik, egitura horiek globalizazioaren berezko azelerazioaren aurkako dinamikak ere sortzen dituzte.

**CE** Noski, niri pentsamendu kritikoa elika daitekeen egoera bat ahalbidetzea interesatzen zait. Abiadurak hustu egiten du ekintza kritikoa. Kapitalismoak ergelkeriaren premia du kontsumo gehiago sortzeko. Pentsamendu kritikoren gabeziak etekina areagotzen du.

**LV** Noiz edo noiz aipatu izan duzu ez zaizula modu geografikoan lan egitea interesatzen. Istanbulko IX. Bienalean komisario izango zara Vasif Kortun-ekin batera, eta *Istanbul* izena jarri diozue. Nola planteatzen duzue tokikotasun kontzeptua?

**CE** Modu geografikoan lan egitea ez zaidala interesatzen diodanean, esan nahi dut ez nagoela interesatuta nazio-estatu kontzeptuarekin lan egiten, eta hori tokikotasun kontzeptuaren bestelakoa da. Ez nago kulturak nazio kontzeptua sustatzearen alde. Interesatzen zaidan geografia hirien geografia da. Ez zait interesatzen nazioek nola eratzen duten irudi oso zehatz bat arte eskoziarra, euskal artea, arte espainiarra denaren inguruan... Garrantzitsua da estatu-nazio kontzeptuaren baldintzetatik harago joatea. Geografia interesatzen zait leku zehatz baten izaera espezifikoa eta lekuen artean eratzen diren desberdintasunei dagokienez. Nazioarteko bienal batek, kultur interbentzioa den aldetik, gogoeta egin dezake espezifikitate horien inguruan, aldetak proposa ditzake, edo haien gainean era kritiko batean pentsatu. Istanbulko Bienalaren kasuan, hura kokatuko den lekua berezitasunetan kontzentratu gara. Vasif Kortunentzat eta niretzat ere planteamendu hori bienalaren eredu zaharraren aurka doa, hau da, komisarioak munduan barrena bidaiatzen dueneko gaur egungo artearen adibide onenen bila, gero hiriko eraikin exotiko eta historikoetan aurkezteko. Lehen une batean, hasi ginen artistak zuzenean gonbidatzen Istanbulen inguruan lan egin zezaten egoitza-programen bitartez. Baina berehala konturatu ginen hura ez zela nahikoa, eragin esentzialista sortzeko arriskuan baikeuden. Horregatik erabaki genuen zuzenean beste testuinguru batzuen gainean lanean ari ziren artistak ere gonbidatzea, eta haien lanak hirian txertatzea. Hartara, lortu genuen aldi berean nabarmentzea errealtatean Istanbul ez den hori guztia; hau da, testuinguruarekin harreman dialektiko bat finkatzea. Edozein premisa linguitikotan bezala, definizio bat formulatu nahi denean, segituan agertzen da haren aurkakoa, itzal moduan.



Peio Aguirre eta Leire Vergara *Models of Resistance* Cork Caucus 2005

**LV** Planteamendu hori zein modutan bereizten da leku zehatz batean finkatzean zentratzen diren beste bienalekin? Kokapen horren esparru sozio-politikoaren inguruko itxaropenek zein neurritan baldintzatzen dute artisten lanaren interpretazioa?

**CE** Hasieratik eman nion garrantzia hiriko norbaitekin elkar-lanean aritzeari. Istanbulen ezin izango nuen lan egin Vasif Kortun gabe. Komisarioen taldean badira halaber bi kide, bata herritar ingelesa baina Istanbulen finkatua, eta bestea hiri horretan jaioa; beraz, taldea berriro ere oinarrizten da Istanbul-Ez Istanbul harreman dialektikoan. Horrek hiriaren gaineko ezagutza sofistikatuagoa izatea ekarri du. Horren haritik, beste bienal batzuekin alderatuta, Istanbulen kanpo-koaren eta barrukoaren artean bestelako dinamika bat sortzen ahalegindu gara. Hala ere, ez gara inoiz saiatu artisten lanaren bidez testuinguruaren estatusa gaindeterminatzen. Gehiago interesatu zaigu erreakzio agoniako bat eragitea hiriaren gaineko gure irakurketaren eta haien proposamenen artean. Berriro ere, bienalak, artisten ekoizpenetik abiatuta, egoera mikro bat sustatzen du.

**LV** Garrantzitsua iruditzen zait artistengan kontzentratzeko hartu duzuen erabakia. Nolabait, gaur goizean Surasi Kusolwong-ek esan duen zerbaitekin dakarkit gogora: artistez fidatu beharra dago, artea ilusio hutsa baita.

**CE** Artistak mundua alda dezakeela sinestea da kontua. «

*Charles Escheren elkarriketa hau ekainaren 22an egin zen, Corken. Informazio gehiago lortzeko:*  
<http://www.corkcaucus.org/>

**CHARLES ESCHE** Eindhoven-eko Van Abbe Museoaren zuzendaria da, *Afterall* aldizkariaren kide editorea (Londres-Los Angeles) eta Vasif Kortun-ekin batera komisarioa Istanbulleko IX. Bienalean.

**LEIRE VERGARA** komisario independentea eta ikertzailea da. Peio Agirrerekin batera zuzendu du D.A.E. (Donostiako Arte Ekinbideak) ekoizpen egitura.